

Isabel Arantzabal Untzetabarrenetxea
Elgeta, Gipuzkoa
(1920-2015)

Aurkibidea

Biografia



Akeliñonean jaio zen 1920an. 19 urterekin hasi zen lanean Berraondokoan, altzari lantegian. Gizonei materiala prestatzen lan egiten zuen, materiala ganbarara igo eta jaisten. Lanetik irtendakoan baserriko lanak egin behar izaten zituen. 26 urterekin ezkondu eta lantegiko lana utzi zuen. Elgetako lehengo bizimoduaren gaineko azalpen ugari ematen ditu.

Zintak

ELG-035

- **Proiektua:** Euskaldunak hizketan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban
- **Data:** 2007-07-01
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Goiena Komunikazio Taldea

Pasarteak

1. 19 urterekin Berraondoko altzari lantegian

- **Erref:** ELG-035/002
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:10. **Bukatu:** 00:01:40

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

19 urterekin Berraondokoa altzari lantegian hasi zen lanean. Materiala garraiatzea izaten zen bere lana. 18 lagun inguru zebiltzan lantegian. Emakumeak ere ibiltzen ziren. Lantegitik irtendakoan baserrian ere lanak egin behar.

Transkripzioa

-Bueno, Isabel, zenbat urtekin hasi ziñan lanian?
-Hogei urtekin; hemeretzikin, Berraondokuan.
-Mueblietan?
-Bai, muebliak.
-Ze eitten ziñuan orduan?
-Hara! Largeruak eta eskillara zahar batzuk ipiñi bai bidetik Berraondoko ganbarara, hantxe goittik behera bajau ahal dan moduan, eta taillarrera eruaten gizonen makinara.
-Gizonen preparatzen orduan?
-Bai. Einddakuak eruan ganbarara eta eittekuak goittik behera ekarri.
-Zelakua zan Berraondokua? Guk ez dou ezautu.
-Ai... Taillar zahar negargarri bat!
-Bai?
-Oj! Taillar zahar negargarri bat zeuan orduan.
-Jente dezente ibilliko zan lanian...
-Bai. Hamazortzi lagun edo. Danak hemengotxe mutil gaztiak, gizon zaharrak eta holako batzuk
-Eta ugazaba, andria?
-Jose Mari Berraondokuan andria.
-Andria ugazaba ez zan izango orduan be?
-Bai. Andrak be bai. Egon giñan. Rufina ta, [Otamendiñeko] Isabel eta, zeintzuk egon giñan? Kantoiko Juanita-eta. Uste dot Kantoiko Juanita be bazala.
-Makinan eitten ziñuen lana, baiña?

-Ez. Ezebez guk holakoik. Guk karriau.
-Pixua erabilli?
-Bai, hoixe. Llargeruak-eta; bi lagun en artian kabezeria-ta, barrena-ta jasotzen.

2. Baserriko lanak; inguruetan soro eta zelaia

- **Erref:** ELG-035/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:02:55

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Lantegitik irtendakoan baserrian ere lanak egin behar izaten zituen. Ganaduarendako arbitara joaten zen. Baratzean eta soroan lan egin behar izaten zuten. Inguruak nolakoak ziren lehenago.

Transkripzioa

-Eta bestela lana basarrixan be bai. Zu kalia bizi izan zifan, baiña basarrixan...
-Bai. Handik urtendakua arbitara Salabadorpera. Ai..., ha zuan bizimodua!
-Arbittara?
-Bai. Ganauak zeren guria eta.
-Zenbat buru?
-Bat. Batendako lekua eta astotxo batendako.
-Familixia edarra...
-Hoixe.
-Ze lan eitten zan orduan, ortulana?
-Amak eta bai. Ortua eta soluak be bai. Soluak Lindazurin bat, Salbadarren beste bat zuenan onduan, beste bat Kantoe ostian, eta beste bat San Roke ostian dao. Horren danon jabe Migel da.
-Oifn ikusten dogu pifnuak eta, baiña orduan ez zan izengo holan?
-Ha pifnua goiko kalia daona, horko kamiño onduan?
-Bai, oifn ikusten dou pifnua-eta dezente, baiña lehen ez zan izengo holan?
-Keba! Orduan ikusten zittuan Olatza-ta, Miravalles-ta elegante de verdad, e!, baiña oifn ez. Ez Asentzio-ta ez e; tapauta Asentzio be pifnuekin behetik gora.
-Asentzio holan ezautu dozu, oin dagon moduan?
-Keba! Al contrario. Garbi eta ederki ikusten zan ermittia. Bai, ointxe, ura-ta gutxitxuao, ezta?, arbolak-eta loratuta edo ojatuta-eta hola egoten zian-eta.

3. Lantegitik irten zeneko kontuak

- **Erref:** ELG-035/004
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:02:55. **Bukatu:** 00:03:50

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Emakumeek ere lan egiten zuten lantegian. 6 urte egin zituen eta lantegitik irten zenean 4 urte egin zituela jarri zioten eta ezin izan zuen ezer kobratu. 26 urterekin lantegitik irten zen ezkontzeko.

Transkripzioa

-Eta lanian esan dostazu emakumiak be bazabiziela, ezta?
-Ene!, ahal daben dana eitten lau txakur haundi irabazteko.
-Nomina eta guzti. Nominia eukitzen ziñuen, hillero pagia eta...
-Bai, eta sei urte ein najittuan, bai, eta lau urte ein nittuala urten nebanian ipini; eta gero ez zer..., zela esaten da, kobratzeko...
-Parua edo?
-Bai. Ezkondu ein nintzan hogeta sei urtekin, eta gero pentsatzen najuan pensinua euko nebala; eta ezetz, lau urte bakarrik. "Lau urte, sei urte eindda gero?" "Eta ba liburuetan lau urte ipintzen dau". Edarki faltsukerixia. Eta sei urte eiñ. Eta gero ez zosten pagau. Estoy sin pensión de eso.
-Holakuak lehen be pasatzen zien. Oin be bai eta lehen be bai.
-Bai. Ia berrogei urte die bai ezkondu nintzala... Pues eso me hicieron.

4. Lantegia erre zeneko kontuak

- **Erref:** ELG-035/006
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:04:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Gogoan du lantegiak behin su hartu zuela. Orduko bizipenak. Aldamenean zegoen Etxeberrri etxeak ez omen zuen kalterik izan.

Transkripzioa

-Akordatzen za zeozer graziosua-edo pasau zana han fabrian? Lan eta lan izango zan, baiña eukiko eukiko ziñuzen zeuen tartiak be.
-Su hartu egun baten, akordatzen nai. Hoixe, jota Etxebarriko etxia be ixa erre bihar eta. Ha zuan estuasuna! Sua hartu zeban.
-Eta gaiñera mueblerixia izanda errez hartu.
-Hoixe. Eta gaiñera [...] eta zeozertzuk baekezen, eta ha zan billurra! Zati edarra erre zan, e! Ez zotsan ikutu Etxebarrikuai, e! Eztakit zela ez zotsan ikutu. Etxebarriko etxia haundixa zan ba orduan, basarri haundixa. Badakik zelako korta garaua, zenbat ganau-ta! Harek zittuan irixak. Zure aitak bai, hamabi urtekin jarri han irixon aurrian eta. Ai!, ha zan [billurra].

5. Garai bateko estratak (bideak)

- **Erref:** ELG-035/008
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:04:55. **Bukatu:** 00:06:30

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriara Asentziora eta Salbadorrera joaten ziren. Lanetik irtendakoan Munazuritik ganadua ekartzen zuen. Lehenago ez zegoen ganorazko biderik ("estartak" bakarrik) eta lokatzez beteta ibiltzen ziren. Angiozarrera nondik joaten zen. Bizikletarik ez zuten izan sekula etxean.

Transkripzioa

-Dana lana ez zan izango, baiña? Zeuek be zeoze eingo ziñuen. Oin kartetan eta sarri eitten dozue. Lehen be zeoze eingo ziñuen. Dana lana ez zan izango. Erromeixaik be egongo zan edo zeozer.
-Erromeixak bai Salbadorren-eta, Asentzion-eta. Holakoxe...
-Ein dozuez gaztetan?
-Kartetan, nik ez dakit kartetan. Nik ez dot ikasi be kartetan, eta nik begira disfrutatzen dot gehixao. Nik jokatzan baiño..., ni ez nai kantsatzen.
-Eta lehenago ze eitten ziñuen, lanaz gaindi zer?
-Lana; hortik urtendakuan, taillerretik urtendakuan, ganaua ekartera. Zerraduran egoten zuan Urdazurin eta, hamen Salbadorren eta, ganaua ekartera etxera. Eta hortxe bidian lokatza artian dinbirri-danbarra. Oingo bidia-eta, Salbadorrera-eta orduan egon bazuan... Holakotxe lokatziakin fan eta etorri. Ez euan orduan bideik. Hortitxik faten zan Anguzarrera, e!, hortitxik gora fan. Baiña zuen tio Jose Luis-eta, Jesus...! Iziar-ta, han goiko txabolía-ta, handitxik goittik Olatza guenera urten. Baiña esaten dotsut, zelako estartak! Harek zittuan lokatzak, eta harek zittuan... Enee! Asentziora fan bihar eta...
-Bizikletaik-eta euki dozue?
-Nik etxuat ikusi be ein gure etxian bizikletaik. Iñoi be ez. Ez mutillei, anaiei eta ez...
-Lanera joateko be bertan taillera.
-Bai.
-Orduan biharrik be ez.
-Bai.

6. Andra Marietan soinujolea

- **Erref:** ELG-035/009
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:07:45

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Jaietan ez zen gauza handirik egoten. Goimenditik etortzen zen soinujolea, "Bergaretxe". Geroago hasi ziren musika ekartzen: Andra Mari egunean Bergarako musika banda eta San Roke egunean Eibarkoa. Dantza lotua gustatzen zaiola dio.

Transkripzioa

-Eta jaixena, akordatzan za jaixena? Kontau zelakuak zien orduko jaixak.
-Orduko jaixak ba filarmonikakin jo plazan, eta kitto. Ostian ezebez, e. Aiuntamentutik-eta ezebez, ezebez! Andramaixak ziela-eta kitto, ezebez. Filarmonikistan bat Goimendittik-edo etorten zan.
-Nundik?
-Bergaretxen anain bat-edo, Bergaretxe zaharran anain bat etortzen zan

filarmoonikia jotera. Majua gizona! Eta haretzek jotzen zittuan piezak-edo eñ eta kitto.

-Dantzarixa izan za?

-Eta gero hasi zian musikak ekarten, baiña urtietara, e! Andramaixa egunian Bergarrak musikuak, eta San Roke egunian eibartarrak. Gero hori, urtietara.

-Dantzarixa izan za, Ixabel? Dantzan gustau?

-Neri dantzan gustau? Bai. Baiña trikitixak-eta ez asko. [...] eta, pasadobliak-eta bai eingo nittukek, ointxe be bai.

-Orduan gustau.

-Hoixe, hoixe. Ondo eñ ezkeru. Ondo dakixenakin, bai.

-Orduan arrimua be ez zan izengo ondo ikusittakua?

-Ez. Ezebez holakoik.

7. Umetako jolasak: txirikiletan, gurdiaekin kulunka...

- **Erref:** ELG-035/013

- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:12:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetako entretenimenduak. 11-12 urterekin gereziak lapurtzera joaten ziren. Orduan ez zegoen zaburik eta gurdiaekin jolasten zuten, bi ertzetan jarri eta gora eta behera eginez. Txirikiletan nola jolasten zuten.

Transkripzioa

-Orduan zetan jokatzen zñuen?

- [Bentako?] etxazpíxan, akordatzen nai. Pagatzarako bidian jeuan [Bentajakíxan?], eta hiru keixa-arbola zeren bidian han erdi-erdíxan; herrikuak zíela-eta. Haraxe keíxak harrapatzera-eta faten...

-Zenbat urtekin?

-Ba hamaika edo hamabi edo hamahiru urtekin; akordatzen nok.

-Orduan ez zien egongo ba ziburuak eta?

-Keba! Holakoik ez genduan ikusi be ein guk. Zer ziburu! Ziburuik onena badakik zer zan? Torrezarko etxazpíxan burdíxa, bai; batzuk atzekaldetik sakatu, bai, eta beste batzuk puntan gora-behera; eta jausten zanak hartu golpe edarra-ta, negar ein eta [...]. Haxe zuan ziburua, burdíxan íbiltzia, atzetik sakatu eta puntatik gora íxotzia.

-Zer joku gehíxao? Txirikíllian-eta íbiltzen zñaten?

-Bai. Txirikíllan bai.

-Zelan íbiltzen zan txirikíllian? Zelan zan hori jokuoi? Akordatzen za?

-Ba kalderoia edo esaten jakon, eskuan hartzen zan, bat sendua, ezta?

-Kalderoia?

-Bai. Eta harekin ba jo ta urrin bota, eta gero holako zer bat, egur batzukin egin zera, eta ha azertatzen zebanak irabaztia. Txirikílla faten zan lekutik ha azertatzia. Irabazi eitten zan. Irabazi zala, bat zala eta ez dakit zer eta. Baiña diruik-eta ez, e! Ez jauan diruik orduan eta. Íbilli zeozetan!

-Oin beste gusanito-eta ez.

-Et-et-et-et. Ezebez.

8. Domeketako entretenimenduak

- **Erref:** ELG-035/014
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:14:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Gaztetan ez ziren mendira joaten, astirik ez zuten izaten eta. Noizbehinka amarekin astoa hartuta sutarako egur bila joaten zen. Igandetan bakarrik izaten zuten jai, larunbatean ere lan egiten zen eta. Igandetan gramola egoten zen eta haren ondoren danbolina (txistularia).

Transkripzioa

-Orduan mendixan ibiltzen ziñaten? Basora joan edo?
-Bai zera! Lekutara faten zuan. Astixa jeuan basora-ta fateko!
-Ez?
-Umetan ez joskuen lagatzen faten basora. Hoixe, lkatzerre ostian basua eta haraxe, abarretara-edo, amakin astuakin fan eta ekarri egurrok sua ixotzeko eta holakotxe batzuk. Baiña ostian basora Intxortara-ta? Et et. Domekan batzutan ixan ezik. Zapatuan be lana eitten zuan eta. [Orduan ez jauan?] zapatuik jai hartzeik.
-Baiña orduan be dana ez zan izango lana? Biharra tamaiñu baten...
-Bai, baiña zapatura arte. Gero domekia jai eta astelenian lanera berrido.
-Domekak zelakuak zian?
-Hemengo domekak? Jesus!, zelakuak izengo zittuan ba? Txanboliñek danboliña joten zeban-eta, trikitixan-edo plazan eitteko-eta; eta gramolia hortxe Oskarbixan zeuan, bentanan ipiñi zebe, Txanboliñenekuak. Eta eskerrik asko haretxi haxe akordau zanian, baten batek esan eban hantxe ipiñi bihar zala, eta ipiñi be bai. Atsalde guztian musika joten.
-Aspaldittik orduan egon da musikia hemen.
-Egon zan, bai, bai. Gazte-denporan hasi zan hori.
-Dantzan-eta eitten zan?
-Hoixe eitten zala!
-Gramoliakin?
-Bai. Gero ha ixildu eitten zeban, eta berak, Txanbolin zaharrak tanboliña eta tanborra joten zeban kamiño baztar baten. Hemen Martonian bizi zuan, eta tanborra joten juan horretxek. Antxiñako denporan.
-Txistuakin dantzan, orduan?
-Bai.

9. Egea irakaslearen zigorrak; mojak

- **Erref:** ELG-035/015
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:16:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Sei urterekin hasi zen eskolan. Egea irakaslea gogorra zen eta lekzioa ez

zekitenean atzamar puntetan jotzen zituen. Behin ama kargu hartzera joan zitzaion. 13-14 urtera arte ibili zen eskolan. Gero mojak etorri ziren; bi moja ziren irakasleak eta hirugarrena sukaldaria.</p>

Transkripzioa

-Eskolara-eta faten ziñazen Isabel?

-Bai.

-Zenbat urtekin?

-Zenbat urtekin orduan be? Sei bat urtekin edo, maistra zarategana. Ejea. Ai!, harek emuten joskuazen guri makillakadak! Atzapar-puntak eta... Hara!, inddarrik barik lagatzen joskuazen. Hola ipintzeko eskua esan eskua, bai, eta jo, ez giñuanian jakitten leziñoik edo zer. Ai!, apurtuta atzapar guztiak be lagatzen joskuazen. Bueno!, kutxaria be heldu ezindda ni joanda nago etxera, e! "Ze, ze dakan eskuan, neska?" "Ze dakaten? Maistriak jo ein dosta, eta jo dosta, gaiñera, makilliakin gogor; jo dosta". Eta gero egun baten gure amak esan ein zotsan maistra zarrai. Eta ba barkatu ezker ez dogula ezebe eitten, bai, eta emun ein bihar izaten doskula. Eskuan ez bazuan buruan emoten joskuazen. Ha zuan maistria! Benetako maistria.

-Ze leziño ikasten ziñuen?

-Orduan? Nik ez jakixat zer leziñoitsuk izengo zien; antxiñako liburuak zelakuak zien be; ixa ahaztuta najaok.

-Abadiak-eta egongo zien emoten?

-Hoixe. Hiru abade baiño ez, gere denpora guztian ezautu jittuau. Hiru abade gandul-gandul pasio batian; batian Baztarrikara..., zerera, Larrabeltxora fan ziela eta atsaldia pasau zebela, eta bestian ez dakit nora fan ziela-eta; hor ibiltzen zittuan basarrik basarri.

-Iñoiz entzun dogu batzuk eskolara faten ziala, baiña beste batzutan etxian be nahikua lan eta eskolara batzutan faillau eta.

-Ez. Faten giñan, faten giñan. Bai, bai. Ni eskolia akabau artian, hamahiru urte arte edo ez dakit hamalau urte arte edo.

-Hamen Elgetan?

-Bai. Monjak egon zian gero. Hortik Irundik edo etorri zian eta. Bat txikixendako, txikixauendako, eta bestia nausixauendako. Madre Benigna eta Hermana Junkal. Bestia aitzia zan.

-Bi eren?

-Bi, eta hirugarrena kozineria eken..

-Bertan jaten ziñuen?

-Haortxe. Jan? Ez. Etxera fan bihar jatera.

-Zeuana jatera.

-Hoixe. Babak eta urdai zatitxo bat jan eta kalera. Aide. Orduan jaten beste ezer.

10. "Txanboliñekua" garai bateko denda nagusia

• **Erref:** ELG-035/016

• **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:16:50. **Bukatu:** 00:18:45

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Baba izaten zen ohiko jakia etxean. Urdai zatiren bat botata edo gabon inguruan odolostearekin jaten zuten. Orduan ez zegoen harategirik, denda

txiki batzuk bakarrik. Dendan zer jenero egoten zen. "Txanboliñekua"; estankoa. Lorenzo Errastik jarri zuen denda geroago. Arropak eskuz josten ziren lehenago.

Transkripzioa

-Orduan gaur beste ez zan egongo?

-Keba!

-Zer jaten zan, Isabel?

-Babia. Babia hartzen giñuan, bai, urte guztirako soluetan.

-Etxian hartutakua.

-Bai, etxian hartutakua, babia. Eta haxe urdaixakin-eta, gabon inguruan odolosten batzuk edo egoten zittuan-eta. Baiña karnazerixan ez zan egoten orduan, karnazerixaik ez euan eta. Ostatukua bakarrik. Faustino aittak ez eban holakoik eukitzen; gero hasi zian odolostiak.

-Danetik egongo zan dendan?

-Dendan danetik? Bai, denda koittau batzuk. Jaboia, txokolate, ontza txiki batzuk; haundirik ez bihar bape, eta harek txikixak ogi zati batekin atsaldian jateko, ontza txiki batzuk. Olixua, abarketak..., zer zuan beste..., garbanzua, eta Txanboliñenian saltzen zittuen. Eta bestia, estankua, lelengo estankua ipiñi zezen. Pospoluak-eta, zigarruak-eta holako zer batzuk. Gero jarri zan denda. [Errasti] jarri zan dendiakin. Politto. Ordurako puxkat gehitzen eta gehitzen bajoian; baiña Txanboliñena izen zan nausi. Harek telia be saltzen zeban, prakak eitteko mauna be bai, eta izarak eitteko tela zurixak be bai, eta... ze zuan besteik? Lanak be bai jertsiaik eitteko. Eta horrek be saltzen zittuen, Txanboliñenekua izen zan hemen nausi.

-Jertsiaik-eta eiñ...

-Eskuz ein bihar danak. Eskuz eindda jertsioik-eta, gizonendako, mutillendako eta neskendako eta danondako.

11. Inguruetako ermitak; apaizak; mezak latinez

- **Erref:** ELG-035/018
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:22:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Madalena ermita non zegoen eta nolakoa zen azaltzen du. Inguruetako ermitak: San Antonio, Salbador eta San Roke. Orduko abadeak: don Manuel Orbegozo, Leocadio Guerra eta parrokoa. Goizeko 8etako meza eta iluntzeko arrosarioa txandaka ematen zituzten. Mezara joatea derrigorra izaten zen, bestela kargu hartzen zieten eta. Mezak latinez izaten ziren eta ez zuten ezer ulertzen.</p>

12. Jaunartzeko kontuak

- **Erref:** ELG-035/019
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:23:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

3 hilabetez iluntzeetan elizara joan eta ikasten egoten ziren jaunartzea egiteko. Aste-egunean egiten zen jaunartzea eta 7 urterekin egin zuen berak. Ez zegoen gaur egungo lujez.

13. Ezkontzako kontuak; ezkonbidaian Donostiara

- **Erref:** ELG-035/020
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:26:40

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Ezkontzak desberdinak izaten ziren; bera soineko beltz batekin ezkondu zen. Soinekoa eta abrigoa nork egin zizkion. Ondoren "Panaderokuan" bazkaldu zuten. Ezkonbidaian Donostiara joan ziren. Ezkondu eta bazkaldu ondoren autobusean Eibarrera jaitsi, trena hartu eta Donostiara joan ziren ezkonbidaian. Igandean handik bueltatu eta astelehenean lanera. Donostia asko aldatu da.

14. Bola-lekuetako giroa

- **Erref:** ELG-035/021
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:27:55

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Lehen jaietan ez zen gauza handirik egoten. Andra Marietan "Bergaretxe" soinu-jolea etortzen zen. Larunbat eta igandetan boletan egiten zen. Euren etxe ondoan zegoen bola-lekua eta jende asko biltzen zen bertan.

15. Canutorengana okelatara

- **Erref:** ELG-035/027
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:32:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Lehenago noizean behin jaten zuten haragia. Platerarekin joaten ziren Canutorengana okelatara.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com